



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Zahartzaroko mendekotasuna eta
arreta ereduaren trantsizioa:
Irudikapen Sozialen teoriatik
hurbilpena**

*Uzuri Castelo, Lorena Gil de Montes
eta Mainer Larrañaga*

111-119 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.14>



Zahartzaroko mendekotasuna eta arreta ereduaren trantsizioa: Irudikapen Sozialen teoriatik hurbilpena

Castelo, U., Gil de Montes, L. eta Larrañaga, M.

EHU-ko Psikologia fakultateko Gizarte Psikologia saila

uzuri.castelo@ehu.eus

Laburpena

Ikerketa honek zahartzaroko mendekotasunari buruzko eguneroko pentsamendua aztertzea du helburu, Irudikapen Sozialen teorian oinarrituz. Gipuzkoan bizi ziren 25 pertsona elkarrizketatuak izan ziren; horien artean zeuden adinekoaren zaintzaren esperientzia familiarean bizi izandako pertsonak, etxez-etxeke zaintza langileak eta zaharren egoitzan bizi ziren pertsonak. Emaitzek, mendekotasunari buruz maila kulturean, erakundeetan eta zaintza-harremanen testuinguruan ematen diren esanahien arteko tentsio eta kontraesanak ezagutarazten dituzte, zazpi gairen bitartez adieraziak. Irudikapen sozialen eraldaketa prozesuei eta edukiei heltzen die ikerketa honek, zaintzaren antolaketa eta epe-luzeko arretei buruzko eztabaidak azaleratuz.

Hitz gakoak: mendekotasuna – zaintza – irudikapen sozialak – polifasia kognitiboa – eraldaketa soziokulturala.

Abstract

Drawing on the Theory of Social Representations, this paper focuses on the study of everyday thinking of dependency at old age. Twenty-five semi-structured interviews were conducted in the context of the Basque Country with relatives, care workers, and elderly living in nursing homes. The results show the articulation of social representations of dependency around seven themes. The themes reflect tensions and contradictions of values and ideas related to dependency at cultural, organizational and relational levels. The transformation processes and contents of social representations are discussed, addressing current debates about the notion of dependency and long-term care systems.

Keywords: dependency – care – social representations – cognitive polyphasia – sociocultural change

1. Sarrera eta motibazioa

Mendekotasun egoeran aurkitzen diren adineko pertsonen arreta eta zaintza sistemaren berrantolaketa egungo erronka soziala da. Azken hamarkadetako aldaketa demografiko, politiko, ekonomiko, teknologiko eta soziokulturalek epe-luzeko zaintza eta arreta zerbitzuei loturiko behar eta gatazkak agerian utzi dituzte nazioartean zein Euskal Herrian (Deusdad, Comas d'Argemir and Dziegielewski, 2016; Lleó eta besteak, 2012).

Batetik, zaintza egitura eta balioen inguruan izandako aldaketek, familian, genero roletan, bizi-eredutan etab. adinekoaren zaintzari buruzko balio tradizionalak eta bideragarritasuna auzitan jarri dituzte. Bestalde, arreten profesionalizazio eta sozializazioaren bidean, zaintzaren kalitatea eta aktore sozial ezberdinen arteko inplikazio eta harreman sozialak -famiak, erakunde publikoak, komunitatea, merkatuak- daude ezbaian (Theobald and Luppi, 2018; Vega-Solis, 2009). Epe motz zein luzera begira, non, nola eta noren eskutik artatuak eta zainduak izan nahiko genukeenaren gaineko balio eta ideiak sozialki jorratu beharreko auziak dira. Hala, mendekotasunaren gaineko kontzepzioetan arakatzea garrantzitsua da mendekoaren ahalduntze eta elkar mendekotasunaren sustapenean (Martin-Palomo, 2016).

Ondorengo ikerketaren motibazioa mendekotasunari loturiko ideia eta balioen gaineko eztabaidetan murgiltzea da, fenomeno egunerokoan nola ulertua den aztertuz. Zentzu honetan, etorkizunera begirako beharrak identifikatu, esku-hartze, formakuntza zein politika eraginkorrak bultzatzeko, garrantzitsua da fenomenoak egunerokoan hartzen duen esanahia kontuan izatea.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Psikologia sozialaren esparruan, Irudikapen Sozialen teoriak, jendeak komunitate mailan esanguratsuak diren fenomenoei buruz dauzkaten ezagutzak nola eraikiak eta bizituak diren ulertzeko ikuspegia eskaintzen du (Moscovici, 1961). Mendekotasunari buruzko irudikapen sozialetan sakontzeko, zahartzaroaren, osasunaren eta adinekoaren zaintzaren irudikapen sozialei buruzko ikerketak aipagarriak dira nazioarteko literaturan. Ikerketa hauen arabera, zahartzaroa zein adinekoaren zaintza modu positibo zein negatiboan irudikatu ohi dira testuinguru soziokultural ezberdinetan. Zahartzaroa positiboki irudikatzen da pertsona zaharren jakinduria eta esperientzia aipatzean. Aldiz, gaixotasuna, gainbehera fisiko eta kognitiboa, bakardadea edota heriotzari loturiko esanahiek zahartzaroaren irudikapen negatiboa artikulatzen dutela erakutsi izan da (Torres et al., 2015). Osasun eta ongizateari buruzko irudikapenekin loturan, mendekotasunari buruzko esanahiak, gorputzaren hauskortasunari, bizi eta heriotza prozesuei eta autonomiari buruz publiko zabalak eraikitzen dituen ikusmoldeen baitan uler daitezke. Zentzu honetan, zahartzaroko ongizatearen irudikapen sozialak aztertu dituen Erresuma Batuko ikerketa batek, zahartze onaren irudikapena, osasuntsu eta aktibo egotearekin, zein autonomia pertsonalaren ideologiaren baitan eraikia dela erakusten du (Medeiros, 2017). Txanpon beraren beste aldean, adineko pertsonaren zaintza, biziaren sostengua, maitasuna, bestearekiko eskaintza, eguneroko ekintzen asetze eta autonomiaren sustapenari loturiko ideien bitartez, modu positiboan ulertu ohi da. Aldiz, lanaren gainkarga eta estresa zaintzaileengan, gutxiespen soziala, errua eta sufrimenduak, zaintzaren alde iluna erakusten dute (Barroca de Moura Pinazo Hernandis, 2013; Hedler et al., 2016).

Ezagutza sistemen gaineko ikerketari dagokionez, Irudikapen Sozialen teoria oinarri hartuz egindako hainbat ikerketek, tentsio eta esanahia kontrajarriek eguneroko pentsamenduaren eraikuntzan duten garrantzia nabarmendu dute, irudikapen sozialen interakzio eta eraldaketa prozesuak bistaritzen dituzten aldetik (Jovchelovitch eta Priego-Hernandez, 2015). Gaur arte mendekotasun-zaintzari buruzko ezagutzak ikuspegi honetatik jorratuak izan ez badira ere, osasuna eta gaixotasunari buruzko kontzepzioak aztertu izan dira testuinguru soziokultural ezberdinetan. Zehazki, Indiako Patna hirian, Ingalaterrako Txinatar komunitate batean zein Mexikoko emakume indigena gazteekin egindako ikerketetan pertsonak osasunari eta gaixotasunari buruz zituzten irudikapenetan jatorri eta izaera ezberdinetako ezagutza sistemen aldebereotasuna eta talka bizi zutela erakutsia izan zen. Ikerketa hauen xedea, komunitateek fenomeno sozialei buruzko ezagutza kokatua garatzen dutela azaltzea izan da, osasunaren sustapenera begirako esku-hartze programek tokian tokiko errealitateekiko ikuspegi sentisiblerik barneratu dezaten (Jovchelovitch eta Gervais, 1999; Priego-Hernandez, 2017; Wagner et al., 2000). Psikologian gailentzen den orientabide positibista eta kognitibistatik aldenduz, irudikapen sozialen bidezko hurbilketa honekin, epistemologia feministarekin kidetuz, ikuspegi erlazional, kokatu eta interseksionala barneratzearen beharra aldarrikatzen da (Soubelet-Fagoaga, 2019). Hortaz, mendekotasunari buruzko irudikapen sozialak aztertzerako orduan, testuinguru zehatzetan dirauten prozesu soziokulturalak eta botere-harremanen arteko bidegurutzeak aintzat hartzen ditugu; generoa, klasea, arraza, adina zein funtzionaltasunari loturiko botere ezberdintasunak nabarmen zeharkatzen dituen errealitatea izanik (Batthyány et al., 2013; Serrano Oswald, 2013).

2.1. Irudikapen sozialen bidezko hurbilketa: ezagutza gatazka eta eraldaketa aztergai

Irudikapen Sozialak pertsona eta giza taldeek sozialki esanguratsuak diren fenomenoen inguruan partekatzen eta eztabaidatzen dituzten ideia, sinesmen eta praktika multzoak dira, eta berebiziko garrantzia daukate identitate sozialaren eraikuntzan, pertsona eta taldearteko portaerak, komunikazioa eta harremanak bideratzerako orduan. Horregatik teoria hau aproposa da pertsonak mendekotasunari buruz daukaten ezagutza soziala, eta haren inplikazio psikosozialak aztertzeko (Wagner eta Hayes, 2005).

Irudikapen sozialak tradizio eta ikuspegi ezberdinetatik landuak izan dira. Ikerketa honetan, teoriaren hurbilpen soziokonstruktibista eta dialogikotik abiatzen gara, zeinak, ezagutza sozialaren eraikuntza, testuinguru soziokulturaleko ezaugarri eta prozesuekin harremanean ulertzen dituen (Jovchelovitch, 2007). Ikuspegi honetatik, prozesu soziokognitiboak modu dinamikoko eta heterogeneoan ulertzen ditugu, ezagutzaren izaera kokatua azpimarratuz. *Polifasia Kognitiboaren* kontzeptua asmo honekin baliatu izan da Irudikapen Sozialen teorian. Kontzeptu honen arabera, pertsonen, norbere baitan zein komunitate mailan, ideia eta esanahi kontrajarrien arteko tentsio eta elkar irautean eraikitzen dituzte irudikapen sozialak (Moscovici, 1961), ezagutza sozialaren izaera askotarikoa eta aldakorra dela babestuz. Polifasia kognitiboari buruzko ikerkuntzak irudikapen sozialaren baitan bi ikerketa esparru garrantzitsu zabaltzen ditu: bata, eguneroko pentsamendu eta arrazoiketa moduen oinarrian dauden ezaugarri soziokulturalak identifikatu eta ikusaraztea. Bigarrena, irudikapenetan gauzatzen diren eraldaketa prozesuetan arreta jartzea. Hortaz, pentsamendu polifasikoa deritzoguna, nabarmen azaleratzen da pertsonen ezagutza, bizi-baldintza edota gertakari sozial berriei maila psikologikoan aurre egin eta zentzua eman behar dienean (Jovchelovitch eta Priego-Hernandez, 2015).

2.2. Helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia zahartzaroko mendekotasunaren irudikapen soziala aztertzea da, eguneroko pentsamenduan gaiari buruz pertsonen adierazten dituzten tentsio eta kontraesanei helduz.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodoa

Parte-hartzaileak: Ikerketa honetan Gipuzkoako 25 pertsona elkarrizketatuak izan ziren. Horien artean zeuden adinekoaren zaintzaren esperientzia familiarean bizi izandakoak (n=11), etxez-etxe zaintza-lanetan aritzen zirenak (n=7) eta egoitza ezberdinetan bizi eta eguneroko beharrak asetzeko laguntza behar zuten adinekoak (n=7). Guztira 15 emakume eta 11 gizonezko hartu zuten parte ikerketan, gazteenak 25 urte zituen eta zaharrenak 93. Jatorriari dagokionez, Euskal herrian, Bolivian eta Nikaraguan jaiotako pertsonen parte hartu zuten, beraien hautuzko hizkuntzan burutuz elkarrizketak, euskaraz zein gaztelaniaz. Modu honetan, senitartekoek, zaintzaileek eta zainduen ahots ezberdinetatik, mendekotasunaren inguruan eraikitako irudikapen sozialaren esanahiak aztertu nahi izan dira.

Prozedura: Mendekotasunari buruz pertsonen zeuzkaten ideia, sinesmen eta balioetan sakontzeko asmotan, elkarrizketa erdi-egituratuak burutu ziren familiarean zein modu profesionalean zaintza eman eta jasotzearen bizipena zeukaten “kaleko” pertsonekin, hau da, gaiari buruzko diskurtso “aditua” ez zeukatenekin. Lehenik, asoziazio askeko teknikaren bitartez parte-hartzaileek “zahartzaroko mendekotasuna” eta “mendeko pertsonaren” estimuluei erantzun zieten. Hau da, emandako hitzen inguruan gogora zetozkien 4 hitz idazteko eta horien esanahia azaltzeko eskatu zitzaion (Joffe eta Elsey, 2014). Jarraian, hainbat galdera pausatu zitzaion mendekotasunarekin zein zaintzari loturik zeuzkaten bizipen eta gogoetak ezagutzeko.

Datu-analisia: Elkarrizketatik bildutako informazioa maila kualitatiboan landua izan zen, Atlas-ti 6.1. Software programaren laguntzaz, analisi tematikoa burutuz (Braun eta Clarke, 2006). Metodologia kualitatiboaren baitan ikuspegi soziokonstruktibista darabilten ikerketetan analisi tematikoa teknika egokia kontsideratua izan da eguneroko pentsamenduaren oinarrian dauden esanahi soziokulturalak aztertzeko. Psikologian bereziki, osasunari zein arriskuari buruzko irudikapen sozialak aztertzeko erabilia izan da analisi tematikoa (Joffe eta Smith, 2012). Analisisan, elkarrizketetatik eratorritako informazioa transkribatu eta kodifikazio-prozesuari ekin zitzaion. Lehendabizi, prozesu inductiboa jarraituz testua hitzez hitz kodifikatu zen. Jarraian, kodeen arteko loturak eginez, esanahi kategoriaz zabalagoak eraikiak izan ziren, gaiari buruzko literaturaren berrikuspenaren laguntzaz. Azkenik, kodifikazio prozesua burututa, elkarrizketetan ageri ziren gaiak identifikatu eta ikerketa taldean adostuak izan ziren. Ikuspegi psikosozialean oinarrituz, mendekotasunari buruzko esanahien arteko

gatazka eta tentsioak hiru dimentsio analitikoetan antolatu ziren: (1) balio eta sinesmen kulturalak, (2) erakundeak eta (3) harreman sozialak.

3.2. Emaitzak

Emaitzek mendekotasunari buruzko irudikapen sozialak zazpi gairen artikulazioaren bitartez ulertzeko ikuspegia ematen dute. Elkarrizketetatik eratorritako aipuetan oinarrituz, zazpi gaiek, dimentsio kulturalaren, erakundeen eta harremani lotutako esanahien arteko tentsioa adieraziz, mendekotasuna egunerokoan nola irudikatua den azaltzen dute.

1. Gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa

Lehen gaiak, familiako zaintzaren inguruan parte-hartzaileek dituzten ideia eta balioak azaleratzen ditu, adinekoaren zaintzan senitartekoek izan beharreko inplikazio eta rolen gaineko ikuspegiaren arteko tentsioak agerian utziz. Ondorengo aipuek, balio familiaristen arteko talkak bistaritzen dituzte, lehenengoak balio tradizionaleri erreferentzia eginez, eta bigarrenak zaintzaren ohiko eredu familiarra zalantzan jarriz:

“Ni gogoratzen naiz hori, sekula ez zela egon kexa edo azken baten familiako pertsona bat da eta zaindu egin behar duzu. Itzulera bat da, ez? Zu umea zarenean beraiek zaintzen zaituzte eta gero zuk beraiek. Tokatzen zaizu, zuregatik egiten dutena gero itzuli egin behar dela uste dut”. (Gizona, 39, senitartekoa).

“Eskubidea daukazu azkenean zure bizitza egiteko eta ez hain karga handia hartzeko, ez? Nik seme-alabak izango banitu, zaintzaile bezala egon naizenez orain, ba ez nuke nahi nire seme-alabendako hori, baldintzatu egiten diezu bizitza, ez dut nahi hori. Nere familiako inori ez diot hori egin nahi, edo lagunei edo maite dudan jendea ez dut baldintzatu nahi”. (Emakumea, 39, senitartekoa)

2. Gaia: Produktzioa vs. Erreproduktzioa

Bigarren gaiak, zaintzaren antolaketa soziala eta lanaren esanahiari dagokionean, esparru produktiboaren (tipikoki maskulinizatua eta sozioekonomikoki balioztatua) eta erreproduktiboaren (tipikoki feminizatua eta balio gabetua) arteko tentsioak azaleratzen ditu (Perez-Orozco, 2014). Alde batetik, familia mailan zaintzaren banaketak, ardura eta erabaki-hartzeek kideen artean sorrarazten dituen dinamikak eta tentsioak azaleraziz. Bestalde, lanaren banaketa sexuala eta arrazializatuan oinarrituz, zaintzaren debaluazioa eta ikusezintasunari lotutako esanahiak agerian uzten dira. Azken hau, ondorengo aipuan adierazten da:

“Gu azken baten bertara gatoz bizimodua aurrera ateratzera, eta lan hau egiten dugu ez horretarako ikasi dugulako, baizik eta egunerokotasuneko esperientziak ikaskuntza hau eman digulako. Eta emakume zaintzaileak dauzkaten familia gehienek zerbitzu sozialetatik jasotzen duten laguntza ekonomikoaren bitartez ordaintzen gaituzte, gutxi dela, eta nahiz eta familia askok soldata on bat ordaintzeko aukera izan, ez dute egiten. Ez dute balioesten egiten dugun lana eta beraien gurasoei ematen diegun laguntza, haiek burutzeko gai ez direna. Eta batzuetan norbaitek esaten dizu: zuregatik ez balitz, nork egingo lituzke lan hauek? (Emakumea, 29, zaintzailea) (gaztelaniatik itzulia)

3. Gaia: Mendekotasuna vs. Autonomia

Hirugarren gaian, mendekotasunari buruzko esanahiak, autonomiari buruzko ideiekin gatazkan daudela agerian uzten da. Hau da, “mendeko pertsonen” eta “autonomoen” arteko banaketatik eratortzen diren botere-harreman eta kontzepzioek, egunerokoan laguntzaren beharra izateak sozialki eta identitate-mailan dituen inplikazioak azaleraziz. Parte-hartzaileen artean esanguratsuak dira norbere autonomia, buruaskitasuna, baliagarritasuna eta besteentzako zama izatea negoziatzen dituzten ideiak. Honakoa ondorengo aipuaren bitartez uler daiteke:

“Burura datozkidan hitzak, ba, jainkoari eskerrak gaur egun oraindik nire burua defendatzeko gai naizela. Autosufizientzia? Hori da, baliagarri naizela, gai naizela, ez? Baliagarri... ni bakarrik garbitzen naiz, bakarrik janzten naiz, galtzerdiak bakarrik janzten ditut. Hemen uzten ez didaten gauza bakarra, nire kabuz dutzatzen da. Bestela, momentuz ez dut inoren beharrik, ez dut inorendako traba izan nahi.” (Emakumea, adineko pertsona, 91) (gaztelaniatik itzulia)

Bestalde, zahartze positiboari, ongizateari eta heriotzari buruz gizartean dauden eztabaida publikoak agerian uzten dira, mendekotasun-egoera eta zaintzaren intentsitate eta luzapenari dagokionez parte-hartzaileek dauzkaten ikuspegi eta ideia kontrajarriak azaleraziz. Ideia hau ondorengo aipuan jasotzen da:

“Nik zalantza daukat azken urtebete edo bi urteak merezi izan zuten bizitzea ze berak sufritzen zuen eta besteok ere. Gainera, ez zen ikusten zera, hobetzeko edo luzatzeko aukera minimorik. Hori, zalantza handia daukat e, nire iritziz e, uste dut ez duela merezi ba modu artifizial baten eta botikei esker bizitzea jada iristen denean muturreko egoera batera. Hemen ez dago eutanasia edo, nahi duzun eufemismoa erabili ba hori ez dago legeztatuta eta ez dakizu zer egin behar dan, eta medikuak ere ez dute soluziorik ematen eta familian ere denek ez dute iritzi berdina izaten”. (Gizona, 67, senitartekoa)

4. Gaia: Etxeko zaintza vs. Erakundeetakoa

Laugarren gaian, erakundeetatik (erresidentziak, eguneko zentroak, etxez-etxeko laguntza etab.) ematen diren arreten kalitatearen gaineko eztabaidak eta tentsioak azaleratzen dira, alde batetik, erresidentzietako lanaren antolaketa eta lan-baldintzei lotutako esanahiak azaleraziz. Bestetik, ohiko egoitza eredu (handiak, ospitale itxurakoak eta despertsonalizatuak) gaineko ikuspegiak eta hausnarketak azaleratzen dira, arreta eredu pertsonalizatu eta etxeoien beharra aipatuz. Aipatutako ideiak ondorengo bi aipuek islatzen dituzte:

“Ba poliki doaz, eskakizun asko daude, diru gehiago bideratu beharko litzateke honetara, eta jendea bizitza erraztu. Eta gero ikusten da populazioa zahartzen doala, alderantzizko piramide bat sortzen dabilela, eta horrek azkenean gizartearen beharrak aldatzen ditu. Beraz, hemendik aurrera nik uste beste zerbitzu mota batzuk balioztatzen hasi beharko direla. Agian egoitza ez da konponbidea, baina agian bai zaintzaileak etxetara joatea, edo pisuak prestatu bost pertsonekin. Eta gero ba langile bezala gutxi irabazten da, eta da lan bat ez dena balioztatzen, eta uste dut hasi beharko direla soldatak igotzen apur bat eta lan hauek gehiago balioztatzen”. (Emakumea, 36, senidea)

5. Gaia: Zaintzaren naturalizazioa vs. Profesionalizazioa

Bosgarren gaian, zaintza-lanari loturiko esanahiak ageri dira, zaintzaren izaera “naturalizatuari” (emakumeek familia esparruan eta maitasunez egina) eta profesionalari (formazioa eta trebakuntza eskatzen duena) loturiko ikuspegi arteko uztarketa eta ideia kontrajarriak azaleraziz. Aurrez egindako ikerketetan azaldu izan da zaintzaren esanahia naturalizatuak oztupo direla zaintza lanen sozializazio eta profesionalizaziora bidean (Moreno, Borrás era Torns, 2016). Ondorengo aipuan adinekoaren zaintzari buruzko ideia naturalizatu agerian uzten da, familiaren maitasun eta afektua zaintzaren profesionalizazio eta desfamiliarizazioaren ideiekin tentsioan:

“Nire ustez familiak lagundu edo mantendu ahal duen momentuan, behintzat, pertsona horrek ere beste gertukotasun batekin, beste hurbiltasun batekin egiten duzu guztia, eta naturalagoa iruditzen zait. Bestea hotzago edo iruditzen zait, azken baten mendekotasuna daukan pertsona horrendako, pertsona zahar edo heldu horrendako positiboago iruditzen zait familia izatea laguntzen dabilena, kanpotik datorren edo erresidentzia baten egotea baino. Hotzagoa iruditzen zait eta nik uste adin horretan familiaren epeltasun hori asko eskertuko dela. Nik, behintzat, eskertuko nuke.” (Gizonezkoa, 39, senitartekoa)

6. Gaia: Partekatze komunala vs. Merkatu bidezko harremanak

Seigarren gaian, Fiskeren harreman sozialen teorian oinarrituz (Fiske, 1992), zaintza-harremanetan kudeatu eta negoziatzen diren bi harreman eredu identifikatzen dira. Horiek dira “Partekatze komunaleko” eta “Merkatu bidezko” harremanak deiturikoak. Teoriaren arabera, izaera ezberdin eta kontrajarrietako bi harreman hauek aldi berean kudeatu beharra gatazka iturri izaten da, pertsonen zaintza-harremanarekiko ikuspegi eta espektatiba ezberdinak izaten dituztelako. Gai honetan adierazten da zaintzaileek eta zainduak, elkarrenganako loturak, senidetasuna, laguntasuna, laguntza-harremana maila afektiboan zein profesionalean kudeatu beharra tentsio iturri dela. Ondorengo aipuan etxez-etxeko zaintzale baten testigantza jasotzen da, harremanen izaera afektiboa eta ordaindua aldi berean kudeatzeak zaintzaileengan dituen inplikazioak agerian utziz.

“Seme-alabekin harreman oso ona daukat, eta dagozkien egunetan zaintzan parte-hartzen dute. Gainera, bere senideekin dagoenean babestuago sentituko da, ez da? Maite dituen pertsonekin egotea...agian ni ez naiz berak behar duen afektua emateko gai, zeren eta, mendekotasun-egoeran dauden adinekoek babes emozional handia behar dute. Baina aitortu beharra dago lan honek hustu egiten zaituela...bai, lan honek gaixotu egiten zaitu. Lan honek akitu egiten zaitu eta emozionalki suntsitu egiten zaitu, zeren eta gehienetan gure kontratuetan sartzen ez diren lanak egiten ditugu, eta lan honek sorrarazten duen neke emozionala ezin da diruarekin ordaindu (Emakumea, 39, zaintzailea) (gaztelaniatik itzulia)

7. Gaia: Pertsonarteko lotura afektiboa vs. Instrumentala

Azkenik, zarpigarren gaian, zaintza-harremanen esanahia instrumentala eta emozionalari egiten zaie erreferentzia. Lehenengoak, mendekotasunari loturiko beharrak maila praktiko edo fisikoan irudikatzen du, hau da, eguneroko ekintzak aurrera eramatea, norbere autonomia eta intimitatearen kudeaketa (gorputz higiena, mugikortasuna, elikadura, erosketak, osasun eta botiken arduraren etab.). Honi loturik, laguntza harreman eta motari buruzko negoziatioak, erresistentziak eta tentsioak adierazten dituzte parte-hartzaileek, ondorego aipuan adierazten den bezala:

“Zaintzen nuen gizonak denerako behar zuen nire laguntza, dutxatzen, komunera joaten, janzen... ezin zuen deus ere egin. Duela gutxi hil da, eta orain bere emaztea zaintzen geratu naiz eta egoera ezberdina da, zeren berak ez du onartzen laguntzaren beharra duenik eta gauza asko bere kabuz egin ezin dituenik ez du onartzen. Etxeko garbiketan eta erosketetan lagundu, botikekin adi egon, batzuetan medikuarengana lagundu...sukaldean ere zerbait baina ez guztiz, berak ez dit uzten eta”. (Emakumea, 29, zaintzailea) (gaztelaniatik itzulia)

Bigarrenean, laguntza harremana maila afektiboan ulertzen da, laguntasuna, tratua ona, maitasuna ematea, elkarrekiko enpatia etab. edota zahartzaroko mendekotasuna kudeatzeak eta zaintzak pertsonengan eragiten dituen emozio kontrajarriak adieraziz. Aldi berean, pertsonen besteengandik espero duten zaintza mota irudikatzeak tentsio eta kontraesanak sortzen dituela adierazten da, hau da, pertsonen nola espero duten zainduak izatea gertukoengandik eta profesionalengandik, eta berdin, zaintzaileen rol eta loturak nolakoa beharko lukeen zainduarekiko. Azken hau ondorengo aipuan adierazten da:

“Guk garrantzia handia ematen diogu bakardadeari, maitasunari, azken batean zaintzaren alde emozionala guk betetzen dugu, kasu gehienetan. Ulertzen dut emozionalki guztiz inplikatu ezin zaren lana dela, asko sufritzen delako, baina egia da ere mundu honetan dagoen jende asko oso hotza dela”. (Emakumea, 41, zaintzailea) (gaztelaniatik itzulia)

4. Ondorioak

Lan honetatik eratorritako emaitzek mendekotasuna sozialki nola irudikatua den ulertzeko gako garrantzitsuak azaleratzen dituzte, aztergai den errealitatean fenomenoari buruzko esanahiak agerian utziz. Ikerketa honetan mendekotasunaren irudikapen sozialak bi mailatan aztertuak izan dira. Batetik, irudikapenei dagozkien edukiak landuz, eta bestetik, prozesu-mailan, esanahi ezberdinen arteko interakzio eta tentsioak identifikatuz.

Edukiei dagokienez, mendekotasunaren esanahiak balio kulturalen, erakundeen eta zaintzaile-zaindu artean ematen diren harreman sozialen testuinguruan uler daitezke. Aurrez egin izan diren ikerketekin bat eginik, pertsonen zahartzeari, zaintzari eta osasunari buruz dituzten ideia eta balioen arteko interakzio eta eztabaiden baitan uler daitezke mendekotasunari buruzko irudikapen sozialak (Barroca de Moura Pinazo Hernandis, 2013; Hedler et al., 2016; Medeiros, 2017; Torres et al., 2015). Zentzu honetan, batetik, zaintzaren kultura familiar eta generizatutik eratortzen diren balio eta sinesmenen baitan, eta bestetik, populazioren zahartzeari eta epe-luzeko zainketei loturik gizartean dauden eztabaiden baitan uler daitezke mendekotasunari buruzko irudikapen sozialak. Horiei loturik, EAEko testuinguruan gaiak azaleratzen dituen hainbat auziei heltzeko gako batzuk eman ditzake

ikerketa honek (Martin-Palomo, 2016; Vega-Solis, 2013). Bestalde, mendekotasunari buruzko esanahiak erakundeetan eta esparru profesionalean ematen diren arretei buruz pertsonen dauzkaten ikuspegi, ideia eta espektatibei loturik uler daitezke. Hauek, arreta-ereduen inguruan gizartean ematen ari diren eztabaidak islatzen dituzte, pertsonen eta komunitatean ardaztutako arreta ereduari lotutako egitasmo eta ikuspegiaren ildotik (Diaz-Veiga eta Sancho, 2014; Usurbilgo udala, 2021). Honekin batera, zaintza lanbideari loturiko esanahiak agerian uzten dira, genero arauen naturalizazio eta jakintza espezializatuaren arteko bidegurutzean, eta historikoki gutxietsitako lan esparrua izanik (Hansen and Kamp 2016). Azkenik, mendekotasunari buruzko esanahiak zaintza-harremanen baitan ematen diren tentsio eta botere-harremanen baitan uler daitezke (Fiske, 1992). Ikerketa honetan mendekotasuna izaera ezberdinetako harremanen arteko gatazken baitan irudikatua dela erakusten dugu, zaintzaileek zein zainduak izan beharreko harreman, rol eta loturari buruzko irudikapenek egunerokoan hartzen duten garrantzia azaleraziz. Honi lotuta, zaintza-harremanak espazio familiar zein profesionalean hobetu eta mendekoaren posizioa ahalduzera begira, interes berezia izan dezake senitartekoen, zaintzaileek zein zainduak elkarren arteko harremanari ematen dieten esanahietan sakontzea (Morhardt eta Spira, 2013; Renedo, 2010).

Irudikapen prozesuari dagokionez eta Polifasia Kognitiboaren kontzeptuari helduz, pertsonen mendekotasunari buruzko ezagutza polifasikoa daukatela ondorioztatu daiteke (Jocvhelovitch eta Priego-Hernandez, 2015). Hau da, pertsonen, posizio ezberdinetatik, gaiaren inguruan adierazten dituzten eztabaida eta tentsioetan oinarrituz garatzen dutela mendekotasunari buruzko eguneroko pentsamendua. Era berean, esanahi ezberdinen arteko tentsio eta gatazkei erreparatzeak, mendekotasun-zaintzari loturik balio, sinesmen eta praktiken inguruko eraldaketak identifikatu eta etorkizunekoak aurreikusteko gaitasuna izan dezake. Gainera, pertsonen egoera ezberdinen baitan dauzkaten bizipen, portaerak zein erabaki-hartzeak ulertu eta horietan eragiteko, garrantzitsua da mendekotasunak testuinguru soziokulturean bereganatzen dituen esanahi ezberdinez eta horien arteko dinamikez jabetzea. Hau dela eta, ikuspegi dialogikotik, mendekotasuna, eguneroko beharrak asetzeko laguntza beharra duten pertsonen eta zahartzaroko hauskortasun egoerak izendatzeko kontzeptu itxia eta homogeneoa izateaz harago, jakintza, diskurtso eta askotariko posizio eta ahots barnebiltzen dituen eraikuntza kokatu gisa ulertzeko ikuspegia ematen digu ikerketa honek (Fine eta Glendinning, 2005). Modu honetan, gaiarekiko ikuspegi erlazonala eta holistikoa izateak, mendekotasunari buruzko ikuspegi inklusiboagoa bultzatzen du, interakzio sozial eta komunikazioan “bestearen” posizioa aitortuz eta elkarmendekotasunaren ikuspegia txertatzea ahalbidetuz.

Azkenik, maila teorikoan zein aplikazio sozialari begirako inplikazioak daude. Batetik, mendekotasuna nola irudikatua den ezagutzeak, gaiari buruz jendartean partekatzen diren iritzi, praktika eta ikusmoldeen berri izatea ahalbidetzen digu, horiek gizarteko espazio ezberdinetan lantzeko aukera emanez, erakunde eta elkarteetan, profesionalen formakuntzan, sentsibilizazio kanpaina, esku-hartze zein politika sozialen garapenean. Gainera, gizarte zaharkitu eta berdinzaleagoetarako trantsizioari begira, garrantzitsua da komunitate mailan gaiaren bueltan dauden eztabaidei heltzea.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunean mendekotasunari eta zahartzaroan ematen diren arretei loturiko ezagutza prozesuen ikerketa zabaltzea aurreikusten da. Zentzu honetan, senitartekoen, profesionalen zein arretak jasotzen dituzten pertsonen harremanen posizio zehaztatutik dauzkaten ikusmolde eta bizipenak aztertzeak, mendekotasunaren irudikapenaren ulermenean sakontzea ekarriko luke, baita errealitate ezberdinei lotutako beharrak hobeto identifikatzen.

6. Erreferentziak

- Barroca de Moura, G. eta Pinazo Hernandis, S. (2013): “Social Representations of American immigrants about immigration, care and elderly caregivers”, *Psicologia & Sociedade*, 25, 131-140.
- Batthyány, K., Genta, N. eta Perrota, V. (2013): “A gender perspective to the Social Representations of elderly care”, *Revista Latinoamericana de Población*, 13, 149-172.

- Braun, V. eta Clarke, V. (2006): "Using thematic analysis in Psychology", *Qualitative research in Psychology*, 3, 77-101.
- Deusdad, B., Comas d'Argemir, D. eta Dziegielewska, S.K. (2016): "Restructuring Long-term Care in Spain: The impact of economic crisis on social policies and social work practice", *Journal of Social Service Research*, 42, 246-262.
- Diaz-Veiga, P. eta Sancho, M. (2014). Etxean ondo egoitzak proiektua. Pertsonengan ardaztutako arreta eredu (Matia fundazioa), Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte politiken saila.
- Fine, M. eta Glendinning, C. (2005): "Dependence, independence or interdependence? Revisiting the concepts of "care" and "dependency", *Ageing & Society*, 25, 601-621.
- Fiske, A.P. (1992): "The four elementary forms of sociality: framework for a unified theory of social relations", *Psychological Review*, 90, 689-723.
- Hedler, H.C., Faleiros, V.P., Santos, M.J.S. eta Almeida, M.A.A. (2016): "Representation of Care Recipients and of Family Care Providers for the Elderly", *Revista Katálysis*, 19, 143-153.
- Lleó, R., Santillan, C., Lopez, S., Perez, A. (2012) *Eztabaida feministarako kaierak: Zainketak*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Joffe, H. eta Elsey, J.W.B. (2014): "Free Association in Psychology and the Grid Elaboration Method", *Review of general Psychology*, 18, 173-185.
- Joffe, H eta Smith, N. (2012): "How the public engages with global warming: A social representations approach", *Public understanding of Science*, 22, 16-32.
- Jovchelovitch, S. (2007). *Knowledge in context: Representations, community and culture*, Routledge, London.
- Jovchelovitch, S. eta Gervais, M.C. (1999): "Social representations of health and illness: the case of the Chinese community in England", *Journal of community & Applied Social Psychology*, 9, 247-260.
- Jovchelovitch, S. eta Priego-Hernandez, J. (2015): Cognitive polyphasia, knowledge encounters and public spheres, in G. Sammut, E. Andreouli, G. Gaskell G, et al. (arg), *The Cambridge Handbook of Social Representations*. Cambridge: Cambridge University Press, 163-178.
- Marková, I. (2003). *Dialogicality and Social Representations: The dynamics of mind*, University Press, Cambridge.
- Martín-Palomo, M. T. (2016). *Cuidado, vulnerabilidad e interdependencias. Nuevos retos políticos*, Centro de Estudios Políticos e Institucionales, Madrid.
- Medeiros, B. (2017). *Ageing well in the community: social representations of well-being promotion in later life* (Doctoral dissertation), University of Cambridge.
- Moreno, S., Recio, C., Borrás, V. eta Torns, T. (2016): "Social imaginary significations about long-term care in Spain. A qualitative approach from caregivers' speech", *International Journal on collective identity research*, 1.
- Morhardt, D. eta Spira, M. (2013): "From person-centered care to relational-centered care", *Journal of American Society on Aging*, 37, 37-44.
- Moscovici, S. (1961). *La psychoanalyse, son image et son public*, Presses Universitaires de France, Paris.
- Perez- Orozco, A. (2014) *Subversión feminista de la economía*, Traficantes de sueños, Madril.
- Priego-Hernandez, J. (2017): "Sexual health in transition: A social representations study with indigenous Mexican young women", *Journal of Health Psychology*, 22, 661-67.
- Renedo, A. (2010): "Polyphony and Polyphasia in Self and Knowledge", *Papers on Social Representations*, 19, 12.1-12.22.
- Theobald, H. eta Luppi, M. (2018): "Elderly care in changing societies: Concurrences in divergent care regimes – a comparison of Germany, Sweden and Italy", *Current Sociology Monograph*, 1 –14.
- Torres, T., Vizeu Camargo, B., Boulsfield, A.B. eta Oliveira, A. (2015): "Social representations and normative beliefs of aging", *Ciência & Saúde Coletiva* 20, 3621-3630.
- Serrano Oswald, S.T. (2013): "The potential of social representations theory (SRT) for gender equitable research", *Acta Colombiana de Psicología*, 16, 63-70.
- Soubelet-Fagoaga, I. (2019) *Ingeniaritza lanbidearen eta lidergoaren irudikapen soziala: edukiak eta dinamikak aztergai genero ikuspegitik* (Doktore tesia), Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Usurbilgo udala (2021) "Zaintza-eredu berri bat kolektiboki eraikitzeke urratsa egingo dute udalak eta Matiak" *Usurbilgo udaleko berrien ataria*. <https://www.usurbil.eus/es/-/zaintza-eredu-berri-bat-kolektiboki-eraikitzeke-urratsa-egingo-dute-udalak-eta-matiak>

- Vega-Solis, C. (2009). *Culturas de cuidado en transición. Espacios, sujetos e imaginarios en una sociedad de migración*, Editorial UOC.
- Wagner, W., Duveen G., Verma, J., eta Themel, M. (2000): "I have some faith and at the same time I don't believe": cognitive polyphasia and cultural change in India", *Journal of Community and Applied Psychology*, 10, 301-314.
- Wagner, W. eta Hayes, N. (2005). *Everyday discourse and common sense. The theory of social representations*, Palgrave Macmillan, New York.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan honen egileek eskerrak eman nahi dizkie elkarrizketetan parte-hartu duten norbanako eta erakundeei (Bergarako Mizpirualde egoitza eta Matia Fundazioa). Hala, zuzenean edo zeharka ikerketa hau egiten lagundu duten lankide eta lagunak eskertu nahi genituzke. Ikerketa hau, Euskal Herriko Unibertsitateko euskararen eta etengabeko prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak doktoregaiak prestatzeko zuzendutako finantziarioari esker eraman da aurrera.